

Arnasaldien elkargunea, Diman

Udalerrri Euskaldunen Eguna ospatuko du Uemak bihar, Diman, 'Euskara da gure lurra' goiburupean • Arantzazu eta Bakio Uemara batuko dira goizean egingo duten bilkuran

Ainhoa Larrabe Arnaiz

Arnasaldia emango dio Dimak bihar euskarari. Udalerrri euskaldunek euskararen etorkizunean duten garrantzia hedatu eta euskararen aldeko konpromisoak bultzatzeko, Udalerrri Euskaldunen Eguna egingo dute bihar bertan, Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak bultzatuta. Orain arte egindakoa ospatu eta aurrera begira dauden erronkak irudikatuko dituzte *Euskara, gure lurra* goiburupean antolatutako festan. Mankomunitateko kideez gain, udalerrri euskaldunen ahalik eta herritar gehien bilteza dute xede. Egitarau oparoa prestatu dute horretarako. Goizean, mankomunitateko bilkura orokorra egingo dute, eta Bakio eta Arantzazuk Ueman sartzeko egindako eskaera onartuko.

Mankomunitateko kide izan ala ez, udalerrri euskaldun guztien bilgune izan nahi du Udalerrri Euskaldunen Eguna. Hala baieztatu zuen Josu Labaka Uemako lehendakariak jaialdiko aurkezpenean. «Askotan nabarmendu dugu, baina maiatzaren 26an, Diman, festa giroan gogoratu dugu udalerrri hauek egundoko ekarpena egiten diotela euskararen normalizazioari. Areago: herri honen arnaguneak direla esan ohi dugu, eta ez dira hitz hutsak».

Ido berari jarraituz aukeratu dute aurtengo leloa: *Euskara, gure lurra*. «Euskara da herri hau lora dadin ezinbestekoa den lurra. Euskara baita herri honen sustaerak duten ongarri naturala. Euskara da gure lurra». Gaur egun, 175 udalerrri inguru dira, Labakaren esanetan, euskaldunak, edo biztanleen %70etik gora euskaldunak dituztenak.

Ospatu eta hausnartu

2016an sartu zen Dima mankomunitatean, euskararen arnagune izaten jarraitzeko neurri gisa. Herri euskaldun askoren gisan, azken hamarkadetan behera egin du euskararen erabilera Diman, eta joera hori iraultzeko erabaki zuten, besteak beste, mankomunitateko kide izate. Urrats bat gehiago egin, eta Udalerrri Euskaldunen Eguna antolatzeko erronka hartu dute aurtengoan.



Bihar Diman egingo den Udalerrri Euskaldunen Eguna aurkeztu zuteneko irudi bat. UEMA

Uema eta Dimako Udalez gain, herriko eta Arratia eskualdeko hainbat elkarterekin elkarlanean antolatu dute egitaraua; besteak beste, hauekin: Abizarie euskara elkarte, Dimesten, Zamakola, Andraizea, Dimetaleroak, Bertso Eskola eta Dimako eskolako guraso elkarte. Larunbatekoa girotzeko hainbat jarduerak egingo dituzte gaur.

1991tik 2014ra bitarte, Uema Eguna antolatzen zuten mankomunitateak urtero. Baina jauzia ematea erabaki zuten 2014an: elkarlanerako eremu zabalagoak beharrezkoak zirelakoan, Udalerrri Euskaldunen Eguna antolatu zuten estreinakoz, Tolosan (Gipuzkoa). 2016a arte urtero antolatzen zuten Udalerrri Euskaldunen Eguna, baina bi urterik behin egitea erabaki zuten mankomunitateak urte hartan. Txandaka aritzen dira ordutik: urte batean udalerrri euskaldunen inguruko jardunaldiak egiten dituzte, eta hurrengoan, berriz, jaialdia.

Leitzan egin zuten jaia 2016an, eta Bizkaiko Arratia eskualdeak hartuko dio lekukoa bihar. Ospakizunaz gain, hausnarketarako tarte hartuko dute antolatu di-

tuzten ekitaldietan. Goizean, hainbat herritako esperientziak ardatz hartuta, euskararen normalizazioan eragiteko praktikez jardungo dute *Udalerrri euskaldunak eta euskalgintza* mintegian. Ondoren, beren-beregi gaz-

Goizean, euskararen normalizazioan eragiteko praktikei buruzko mintegia egingo dituzte

Bakio eta Arantzazu gehituta, 87 udal izango ditu Uemak. 250.000 biztanleko lur eremua hartzen du mankomunitateak

teentzat prestatutako *Gazteak eta euskara, inertziaz kontzientziara* mintegia egingo dute.

Bi kide gehiago Ueman

Goizean, batzar nagusia egingo du Uemak Diman bertan: mankomunitatea osatzen duten 85 herrietako ordezkariak bilduko dira. Arantzazu eta Bakio mankomunitatera gehitzeko erabakia onartuko dute bertan. Hortaz, larunbateko hitzorduaren ondoren, Euskal Herriko 87 udal izango dira mankomunitateko kide.

Guztien artean, dagoeneko, 250.000 biztanleko eremua hartzen dute.

Aho batez erabaki zuten Bakio-ko Udalean Ueman sartzeko eskaera egitea: udalbatza osatzen duten EAJ, EH Bildu eta Bakio Baiko 11 ordezkariak eman zuten aldeko botoa. 2.604 biztanle ditu Uribe Butroeko udalerri horrek, eta, bertako euskaldunen indizea handia den arren, «kezkatuta» begiratzen diote euskararen erabilera herrian erakutsi duen joerari.

Hizkuntzaren transmisioa, iraupena eta erabilera bermatzeko neurri bereziak hartzea beharrezkoa da Isabel Barturen Kultura eta Euskara zinegotziaren hitzetan. «Udalak izango dituen zor ekonomikoek itota, orain arte ez dugu aukerarik izan egoerari heltzeko». Egoerari aurrea hartzen saiatuko dira orain, ordea, eta mankomunitatearen laguntza «ezinbestekotzat» dute norabide horretan. «Mankomunitateak bultzada emango dio euskararen aldeko hizkuntza politika aurrerakoari, eta horrekin

EGITARAUA

Bihar ospatuko dute Udalerrri Euskaldunen Eguna, Diman. Gaurtik «motorrak berotzeko», hainbat ekitaldi antolatu dituzte Dimako Udalak eta herriko eragileek.

Gaur

19:00. Harrera udalerrri euskaldunetako topaketetako gazteei.
20:00. Pilota desafioa.
22:00. Kontzertua: Zazkel.
19:00. Euskal karaokea, Dimako tabernetan.

Bihar

10:00. Uemaren batzar nagusia.
10:15. Mintegia: *Udalerrri euskaldunak eta euskalgintza*.
11:00. Mintegia: *Gazteak eta euskara, inertziaz kontzientziara*.
11:00. Haurrentzako jolasak.
12:00. Kalejira buruhandiek, txotxogiloekin, Jentiltxu eta Jentiltirekin.
12:30. Ekitaldi nagusia.
13:15. Kantujira.
14:45. Bertso bazkaria, Unai Iturriaga eta Jon Maiarekin.
20:00. Areatzako batukada, herriko kaleetan.
22:00. Kontzertua: Egurra Ta Kitto.
23:00. Erromeria: Ezten Giro.

herriko egoera soziolinguistikoan eragin, eta, pixkanaka, egoera irauli nahi dugu».

Behaldira eteteko

Bestelakoa da Arantzazuren egoera. Martxoan erabaki zuten udalak Ueman parte hartzea. Bakion ez bezala, mankomunitatean sartzeari kontra azaldu ziren EAJ-ko udal ordezkariak; hortaz, EH Bilduren botoekin egin zuten aurrera proposamenak. Herri txikia da Arantzazu: 394 biztanle besteherri ez du. Baina hizkuntzarekiko kezka handia dute bertan. Euskararen erabilera %76koa bada ere, azken urteetan atzeraldia nabaritu dute euskararen erabileran. 1981ean, adibidez, %86 ziren euskal hiztunak.

Bada, behaldira etetea da, Nekane Zuazo Arantzazuko Euskara zinegotziaren esanetan, udalaren asmoetako bat. «Euskarari eusteko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko sentsibilizazio lana areagotzea dagokigu, eta Uemaren esperientziak eta laguntzak bide horretan aurrera egiten lagunduko digu».



Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, jo webgune honetara: www.uma.eus